

## DONOSTIAKO GAZTEENTZAKO EKINN EGONALDI PROGRAMA EKINTZAILTZA ETA BERRIKUNTZA PROIEKTUAK DONOSTIAN GARATZEN DITUZTEN TALENTUDUN GAZTE DONOSTIARRENTZAKO FIDELIZAZIO PROGRAMAN PARTE HARTZEKO OINARRIAK

### ATARIKOA

Donostiako Sustapenak, 2023an, berretsi egin du estrategia berri eta kudeaketa eredu berri baterako trantsizioaren aldeko apustua, Donostiako Berrikuntza Agentziaren zeregina betetzean zentratutako estrategia horren helburua hirian berrikuntza erreferente bihurtzea izanik.

Hori dela eta, pertsoneri, enpresei eta proiektuei lagundu nahi die, arreta pertsonalizatua, kalitatea eta foku estrategikoa eskainita eta hiriko berrikuntza ekosistema osatzen duten hainbat eragile publiko eta pribaturekin elkarlanean egiteko apustu garbia eginda.

Donostia erronka demografiko nabaria duen hiria da, bertako biztanleria zahartua delako. Gaur egun, ia 61.000 gazte (35 urtetik beherakoak) bizi dira hirian, eta kopuru hori % 15 jaitsi da mendearen hasieratik. Batez besteko adina ia 47 urte da.

Gazteak bereizten den moduan sortzen hasi den apustu bihurtu dira; izan ere, apustu hori gure erakundearen estrategian esanbidez planteatu da, gure hiriko gazteei eta erakar ditzakegun gazte talentudunei enplegua, formakuntza eta etxebizitza lortzeko aukerak eskaintzeko. Apustu estrategikoa da Donostiako Sustapenarentzat eta erronka demografiko handiari aurre egin behar dion hiriarentzat.

Gauzak horrela, 2023an, 2.000 gazterekin lan egin da berrikuntza eta ekintzailtza jardueretan; diruz lagundutako kontratuen % 56 35 urtetik beherako pertsonentzat izan dira. Horrez gain, ekintzailtzari buruzko 8 mintegi eta berriazko jarduera antolatu dira lanbide heziketako ikastetxeekin elkarlanean. Ekimen aipagarrien artean, nazioarteko mugikortasun beka, kontrataziorako eta enplegua sortzeko laguntzak daude, baita III. Talentu Azoka ere (non gazteentzako 150 eskaintza baino gehiago aurkeztu baitira).

Hezkuntza arloan, 23 ikastetxetako 1.800 gazterengana (11 ikastetxe publiko) iritsi da, batez ere Donostia Innovation Challenge programaren zazpigarren edizioaren bidez, 350 parte hartzaile baino gehiago lortuz.

Esparru horretan, gazteei laguntzeko programa hau planteatzen du Donostiako Sustapenak, Donostian profesionalki eta pertsonalki garatzeko aukera izan dezaten.

## 1. HELBURUA

Programaren helburua **talentudun gazte donostiarrei lanbide karrerako denboraldi batean ostatu aukerak eskaintzea da**. Aukera horiek ekintzailtza proiektu berritzaile bat garatzen ari diren gazte donostiarrei eskaintzen zaizkie, baita kontratua lortuta Donostiako enpresa berritzaile batean proiekturen bat garatzen ari diren gazte donostiarrei ere.

Kasu bietan, programa 35 urtetik beherako donostiarrei zuzenduta dago, baldin eta beren garapen profesionala Donostiako Sustapenaren programa baten bidez gauzatzen bada.

- A) Balio erantsia dakarren ekintzailtza proiektu berritzaile, sektore anitzeko eta bideragarri bat duten eta programa hauetako batean onartuak izan diren gazte donostiarren kasuan:
- Ekinn+ edo Ekinn+ Osasuna programa, 2023ko eta 2024ko deialdiak.
  - Donostiako Sustapenaren ekintzailtza berritzaileari lotutako beste programa batzuk.
- B) Tokiko erakundeetan lan egiteko kontratatutako gazte donostiarren kasuan, baldin eta berrikuntza- eta/edo ikerkuntza-proiektuak egiten badituzte eta kontratazioa Donostiako Sustapenak tokiko talentua garatzeko sustatu dituen programa hauetako baten markoan egin bada.
- SSConnecting Talent programa, 2022ko eta 2024ko edizioak.
  - Ekinn Talent programa, 2024ko edizioa.
  - Donostiako Sustapenak kualifikazioa duten gazteak kontratatuzeko sustatu dituen beste programa batzuk.

Donostiako Sustapenak etorkizunean egingo diren ekintzailtza, kontratazio edo bestelako deialdiak programa honetan sartzeko eskubidea gordetzen du. Horrelakoetan, deialdi horien oinarriek aukera hori aipatuko dute.

Horrela, karrera profesionala gure hirian garatzen ari diren gazte donostiarrei bizilekua izateko aukera gutxienez 6 hilabetez eta gehienez ere 2 urtez eskaini nahi zaie.

Programaren baitan, Donostiako Sustapenak 16 plaza eskainiko ditu, San Bartolome gainean, 16. zenbakian (PK 20009) dagoen Ekinn eraikinean. Salbuespen gisa, Talent House eraikina izan ahalko da, Baenako Dukea Pasealekuko 42. zenbakian dagoena (PK 20009, Aiete auzoa).

Donostiako Sustapenak, bidezkoztat jotzen badu, apartamentu kopurua, kokapena eta programaren baldintzak aldatzeko eskubidea gordetzen du.

## 2. PARTE HARTZAILEEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Programa honetan parte hartu nahi duten pertsonak ondoko baldintzak bete beharko dituzte:

- 1) Pertsona fisikoak izatea.
- 2) Eskaera aurkezteko unean 35 urte baino gutxiago izatea.
- 3) Donostiarekin lotura izatea, hau da, ondoko hiru egoeretako batean egotea:
  - Donostian jaioa izatea.

- Donostian erroldatuta egotea, azken 15 urteetan gutxienez, eskaera egiten den egunean.
  - Donostian dauden fakultateetako eta/edo unibertsitate eskoletako batean titulazio ofizial bat lortu izana eta gutxienez azken 10 urteetan Donostian erroldatuta egotea, eskaera egiten den egunean.
- 4) Parte hartzeko aukera motibazio gutunaren bidez esanbidez eskatzea.

Gainera, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- A) Balio erantsia dakarren ekintzailtza proiektu berritzaile, sektore anitzeko eta bideragarri bat duten gazte donostiarren kasuan, parte hartu ahal izango dute:
- Ekin+ eta Ekin+ Osasuna programaren 2023ko eta 2024ko deialdian onartutakoek.
  - Donostiako Sustapenaren ekintzailtza berritzaileari lotutako beste programa batzuen 2023ko eta 2024ko deialdietan onartu direnek.

Programa honetan parte hartzeko lehentasuna izango dute hileko diru sarrerarik ez dutenek edo hilean 1.000 euro baino gutxiago irabazten dutenek (soldata garbia). Kalkulua egiteko, bizikide guztien diru sarrerak izango dira kontuan. Kalkulua egiteko, azken 3 hilabeteetako diru sarrerak hartuko dira kontuan, eskaera egiten den egunetik aurrera zenbatuta.

- B) Tokiko erakundeetan lan egiteko kontratatu diren eta Donostiako Sustapenak tokiko talentua garatzeko sustatu dituen programa baten markoan berrikuntza- eta/edo ikerkuntza-proiektuak egiten dituzten gazte donostiarren kasuan, parte hartu ahal izango dute:

Donostiako Sustapenerako hurrengo deialdien onuradun edo kontratatuak izan direnak.

- International Connecting Talent programa, 2022ko edizioa eta 2024ko edizioa
- Ekinn Talent programa, 2024ko edizioa.
- Donostiako Sustapenak kualifikazioa duten gazteak kontratatzeke sustatu dituen beste programa batzuk.

Urtean 19.000 eurotik beherako soldata gordina jasotzen dutenek izango dute lehentasuna.

Halaber, programan parte hartzeko lehentasuna izango dute 2024ko uztailaren 8az geroztik hasitako kontratua dutenek.

Donostiako Sustapenak oinarri hauetan ezarritako baldintzak bete direla egiaztatzeke beharrezkotzat jotzen duen informazio eta dokumentazioa eskatu ahal izango du.

### **3. PROGRAMAREN EZAUGARRIAK ETA FUNTZIONAMENDUA**

Programak Ekinn eraikinean ostatu hartzeko aukera eskaintzen du, eta honako ezaugarri hauek ditu:

- A) Balio erantsia dakarren ekintzailtza proiektu berritzaile, sektore anitzeko eta bideragarri bat duten gazte donostiarren kasuan:

- Ekinn eraikinean etxebizitza izateko aukera, Donostiako Sustapenak proposatutako apartamentuan, premiaren eta eskuragarritasunaren irizpideen arabera.
- Gutxienez urtebeteko eta gehienez ere bi urteko egonaldia, Ekinn+ eta Ekinn+ Osasuna programaren edo dagokion programaren hasieran zehaztutako mugarren arabera.
- Hobarria alokairu kostuan: gehienez % 60 lehenengo urtean, eta gehienez % 40 bigarren urtean.

Programan parte hartzen duten pertsonak une batean ez badituzte betetzen Ekinn+ eta Ekinn+ Osasuna programan edo dagokion programan ezarritako helburuak, Donostiako Sustapenak programan parte hartzeko eskubidea eten eta Ekinn programako alokairu kontratua berehala deuseztatu (jakinarazpen fede emaile bidez) egin ahal izango du.

Ekinn+ eta Ekinn+ Osasuna programa edo dagokion programa bukatu ondoren Ekinn eraikinean ostatua luzatu ahal izango duten ekintzaileek proiektuaren aurrerapena eta emaitzak aurkeztu behar izango dituzte, hilean behin edo Donostiako Sustapenak eskatzen duenean. Aurrerapena aurkezten ez badu edo proiektuarekin aurreratzen ez badu, Donostiako Sustapenak Ekinn eraikineko egonaldia etetea edo ez luzatzea erabaki ahal izango du, berehala deuseztatuz (jakinarazpen fede emaile bidez) Ekinn programako alokairu kontratua.

Onuradunen betebeharrak honako hauek izango dira:

- Donostiako Sustapenarekin alokairu kontratua sinatzea.
- Eskatutako egonaldiaren iraupenaren araberako fidantza banku transferentzia bidez ordaintzea.
- Donostiako Sustapenaren hobarian sartzen ez den hileroko alokairu kuota banku helbideratze bidez ordaintzea.
- Esleitutako apartamentuaren kontsumo gastuak banku helbideratze bidez ordaintzea.
- Aparteko garbiketa-gastuak banku-helbideratzearen bidez ordaintzea, egonaldia amaitutakoan. Higiene eta osasun arrazoiengatik garbiketa sakona egingo da irteeran.

Aurreko betebeharrak horietako edozein bete ezean, Donostiako Sustapenak errentamendu kontratua berehala desegin ahal izango du eta, gainera, ez-betetzearen ondorioz sor daitezkeen kalte galerak erreklamatu ahal izango ditu.

Onuradun horiei esleitutako plaza kopurua: **8 plaza.**

B) Tokiko erakundeetan lan egiteko kontratatu diren eta Donostiako Sustapenak tokiko talentua garatzeko sustatu dituen programa baten markoan berrikuntza- eta/edo ikerkuntza-proiektuak egiten dituzten gazte donostiarren kasuan:

- Etxebizitza erabiltzeko aukera, Ekinn eraikinean.
- Gutxienez 6 hilabetez eta gehienez ere 2 urtez, lehenengo instantzian erakunde kontratatzailearekin lotura izaten jarraitzen badu.
- Hobarria alokairu kostuan: gehienez % 40 lehenengo urtean, eta gehienez % 30, bigarren urtean.

Donostiako Sustapenak finantzatzen duen hasierako kontratuari dagokion aldia gainditzen duen egonaldia edo diruz laguntzen den aldia behin bukatuta luzapena eskatuz gero, Donostiako Sustapenak hala eskatzen duenean, onuradunak lan bizitzaren agiria aurkeztu beharko du, lan kontratuak indarrean jarraitzen duela egiaztatzeko.

Programaren onuradunak erakunde kontratatzailearekin duen kontratu harremana uzten badu, Donostiako Sustapenak eskubidea izango du programan parte hartzea eteteko eta alokairu kontratua berehala desegiteko (jakinarazpen fede emaille bidez).

Onuradunen betebeharrak honako hauek izango dira:

- Donostiako Sustapenarekin alokairu kontratua sinatzea.
- Eskatutako egonaldiaren iraupenaren araberako fidantza banku transferentzia bidez ordaintzea.
- Donostiako Sustapenaren hobarian sartzen ez den hileroko alokairu kuota banku helbideratze bidez ordaintzea.
- Esleitutako apartamentuaren kontsumo gastuak banku helbideratze bidez ordaintzea.
- Aparteko garbiketa-gastuak banku-helbideratzearen bidez ordaintzea, egonaldia amaitutakoan. Higiene eta osasun arazoengatik garbiketa sakona egingo da irteeran.

Onuradun horiei esleitutako plaza kopurua: **8 plaza**

Onuradun mota bakoitzari esleitu beharreko plazak bete ezean, Donostiako Sustapenak geratzen diren plazak beste taldeko onuradunei esleitu ahal izango dizkie.

Kasu bietan (A eta B), onuradunaren hasierako egoera aldatzen bada, Donostiako Sustapenak programan parte hartzea eten edo aldatu ahal izango du.

Kasu bietan (A eta B), onuradunak artikuluko honetan adierazitako betebeharrak betetzen ez baditu, Donostiako Sustapenak programan parte hartzea eten edo aldatu ahal izango du, betebeharrak bat bete ez duen onuradunak kalte galerak direla medio aurkez dezakeen erreklamazioa ezertan galarazi gabe.

Ostatuaren ezaugarri eta baldintzak I. eranskinean aurki daitezke.

#### **4. PROGRAMAN PARTE HARTZEKO ESKAERAK FORMALIZATZEA**

Eskaerak aurkezteko epeak programara bideratutako baliabideak agortu arte **iraungo du** (hala bada, horren berri Donostiako Sustapenaren webgunean emango da).

Programara bideratutako baliabideak behin agortuta, apartamentu kopurua handitzen bada, eta Donostiako Sustapenak hala erabakitzen badu, eskaera aurkezteko epea luzatu ahal izango du, oinarri hauek aldatuz (hala bada, dagozkion bideetan emango du horren berri).

Eskaerak bide telematikoak aurkeztu behar izango dira, Donostiako Sustapenaren webgunearen bidez ([www.fomentosansebastian.eus](http://www.fomentosansebastian.eus)).

Salbuespenezko kasuetan, behar bezala arrazoituz gero, ezinezkoa bada eskaera Donostiako Sustapenaren atariaren bidez aurkeztea, Sustapenak esanbidez baimentzen badu, eskaera aurkezteko beste bide bat gaituko da.

Eranskinak osorik bete eta behar bezala orrialde guztietan sinatu beharko dira. Sinadura behar duen eransteako dokumentazioa digitalki sinatu beharko da.

Edozein informazio eskatzeko edo galdera egiteko, 943 482800 telefono zenbakia edo [fomentoss@donostia.eus](mailto:fomentoss@donostia.eus) helbide elektronikoa erabil daiteke, gaian honako hau jarrita: **“gazte donostiarrentzako Ekinn Egonaldi Programa 2024”**

Jendearentzako ordutegia Donostiako Sustapenaren webgunean adierazitakoa da.

Donostiako Sustapenak eskaera aurkeztu aurretiko arreta zerbitzua eskaintzen du, sor daitezkeen zalantzak argitzeko. Zerbitzua posta elektronikoz eskatu beharko da, aipatutako helbide elektronikoan.

Honako dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

#### **Administrazioko dokumentazioa:**

1. Eskaeraren eranskina
2. Programan parte hartzeko plaza eskatzeko motibazio gutuna.
3. Eskatzailearen NAN agiriaren kopia.
4. Donostiarekiko lotura egiaztatzen duen agiria.

Onuradunak bere gain hartzen du egindako erantzukizunpeko adierazpenen eta aurkezten dituen beste dokumentu guztien egiazkotasunaren erantzukizun osoa.

Pertsona interesdunek dokumentu horietako bat lehenago aurkeztu badute Donostiako Sustapenaren programetako batean parte hartzeko, ez dute atal honetan eskatzen den dokumentazioa berriro aurkeztu beharko, baldin eta indarrean jarraitzen badu eta datuak aldatu ez badira.

Onuradunak bere gain hartzen du egindako erantzukizunpeko adierazpenen eta aurkezten dituen beste dokumentu guztien egiazkotasunaren erantzukizun osoa, baita dagozkion erantzukizun guztiak ere, dokumentu horiek iruzurrezkoak, faltsuak edo engainagarriak badira.

## **5. ESKAERETAKO AKATSAK ZUZENTZEA**

Donostiako Sustapenak agiri guztiak aztertu ondoren bete gabe daudela edo dokumenturen bat falta dela egiaztatzen badu, errekerimendua egingo dio eskatzaileari hamar egun balioduneko epean nahitaezko dokumentuak aurkez ditzan; halaber, jakinaraziko zaio horrela egiten ez badu, eskaera kanpoan utziko dela, bestelako izapiderik gabe, eta, ondorioz, horri

buruzko ebazpena emango dela. Donostiako Sustapenak proiektuaren txostenari buruzko azalpenak eskatu ahal izango ditu, komenigarria dela jotzen badu.

Zuzenketak onuradunak harremanetarako (jakinarazpenak egiteko) eman duen helbide elektronikoaren bidez bidaliko dira. Jakinarazpenak web aplikazioan –espedientean– ere egongo dira eskuragai.

Akatsak zuzentzeko eskatutako dokumentazioa aurkezteko, hasierako eskaera egiteko erabili zen bide bera erabiliko da. Posta elektronikoa bidez bidalitako egiaztagiria ez dira onartuko.

Programan parte hartzea onartu edo ukatzeko erabakia Donostiako Sustapenak emandako esanbidezko ebazpenaren bidez adieraziko da eta posta elektronikoz jakinaraziko da. Jakinarazpenak web aplikazioan –espedientean– ere egongo dira eskuragai.

## 6. ESKAERAK BALORATZEA ETA FORMALIZATZEA

Eskaerak erregistroan sartzeko hurrenkerari jarraikiz ebaluatu eta ebatziko dira, programari esleitutako baliabideak agortu arte.

Aurkeztutako eskaera guztiak honela baloratuko dira:

1. Programan parte hartzeko baldintzak betetzen diren egiaztatzea, onuradun mota bakoitzaren arabera.
2. Motibazio gutunaren balorazioa. Modu positiboan baloratuko dira honako hau aipatzen duten eskaerak: programan parte hartzea garrantzitsua izango dela onuradunak programan parte hartu ondoren beste etxebizitza mota batean jarraitzeko aukera izateko.
3. Eskatutako egonaldiaren hasiera eta iraupena. Lehentasuna emango zaie programan 2024ko uztailaren 8an edo hasiko diren egonaldien eskaerei.
4. Eskaerak ebatztean eta plazak esleitzean genero parekotasunaren irizpideak beteko dira, betiere programan parte hartzeko baldintzak betetzen badira.

Donostiako Sustapena eskatzaileekin harremanetan jarri ahal izango da informazio gehiago behar izanez gero edo pertsona ezagutu nahi izanez gero.

Donostiako Sustapenak hilabeteko epea izango du eskaerari buruzko ebazpena emateko, eskaera erregistroan sartzen den egunetik hasita, administrazioko dokumentazioa zuzentzeko aldiak epea zenbatzeko aintzat hartu gabe. Programan parte hartzea onartzeko ebazpena ezarritako epean ematen ez bada, ez du esan nahi eskaera onartu denik.

Eskaera behin ebatzita eta balorazio fasea gaindituta, erreserba egiteko eta Ekinn-en ostatu hartzeko prozesua hasiko da: kontratua hasteko data ezartzea, fidantza ordaintzea, kontratua sinatzea eta abar. Programan parte hartzea onartu eta gehienez ere hilabete geroago sartu beharko da Ekinn-en, justifikatutako arrazoiak direla medio, Donostiako Sustapenak beste data bat esanbidez eta idatziz onartzen duenean izan ezik.

Donostiako Sustapenak esanbidezko ebazpenaren bidez adieraziko du programan parte hartzeko eskaera onartu edo gaitzesteko erabakia.

Ebazpenak posta elektronikoz jakinaraziko zaizkie eskatzaileei, eskabide orrian "Jakinarazpenetarako helbide elektronikoa" apartatuan adierazitako helbidean; web aplikazioan ere egongo dira eskuragai, espedientearen barruan.

Eskatzailea ebazpenarekin ados ez badago, alegazioak aurkeztu ahal izango ditu gehienez ere hilabeteko epean, ebazpena ematen den egunetik aurrera. Horretarako, Donostiako Sustapenarekin harremanetan jarri beharko du, egin beharreko izapideei buruzko informazioa jasotzeko. Donostiako Sustapenak erabakitakoa bete beharko da, eta, hala beharrez gero, bi aldeak Donostiako Epaitegien eta Auzitegien jurisdikzioaren mende geratuko dira.

Aurrekoa gorabehera, Donostiako Sustapenak eman zaizkion datuen egitasuna edo zehaztasuna egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen duen edozein informazio eta dokumentu osagarri eskatu ahal izango dio eskatzaileari.

Dokumentazioa aurkezteko epeak bete ezean, eskatzaileak atzera egin duela joko da, Donostiako Sustapenak eskaerak aurkezteko epearen ezohiko luzapena esanbidez onartzen duenean izan ezik, interesdunak arrazoi justifikatuak eman ez luzapena eskatu eta gero.

## **7. ONURADUNEN BETEBEHAR OROKORRAK**

Programaren onuradunek oinarri hauetan jasotako betebeharrak bete beharko dituzte; izan ere, ondorio horietarako, esanbidez adierazten da ondoko betebeharrak (besteak beste eta bakarrak izan gabe) bete behar direla:

- a) Oinarri hauetako 2. eta 3. artikuluetan adierazitako baldintza guztiak betetzea.
- b) Donostiako Sustapenak esleitutako eraikinaren araudia betetzea.
- c) Sustapenak eskatutako datu estatistikoak betetzea, hain zuzen, programa honetan parte hartzen duten pertsonen mikrodatuei lotutakoak.
- d) Programan parte hartzea onartzen duten egiaztagirak gordetzea, horiek guztiak egiaztatu eta/edo kontrolatu baitaitezke; nolana ere, aplikatu beharreko araudian ezarritako epean gordeko dira.
- e) Programan parte hartzea onartzeko kontuan hartu den edozein inguruabar –subjektibo zein objektibo– aldatu baldin bada, Donostiako Sustapenari horren berri ematea.
- f) Programan parte hartzeari dagokionez, Donostiako Sustapenak bere eginkizunak betez eskatzen duen informazio guztia ematea.
- g) Helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuk jasoz gero, Donostiako Sustapenari horren berri ematea.
- h) Donostiako Sustapenak jarraipena egiteko asmoz antolatzen dituen bilera guztietan parte hartzea.
- i) Programan parte hartzea dela eta Donostiako Sustapenak dei ditzakeen jardunaldietan parte hartzea (proiektuen aurkezpena, jarduerak, emaitzen jarraipena eta abar).
- j) Programan parte hartzeko eskaeran aurkeztutako baldintzak aldatzen dituen edozein egoera gertatuz gero, Donostiako Sustapenari jakinaraztea.
- k) Donostia Sustapenari laguntzea, hala badagokio, egin ditzakeen finantza kontroleko eta egiaztapeneko jarduketetan, eta bere esku jartzea eskatzen duen informazio eta dokumentazio guztia.

## **8. PARTE HARTZEKO AKORDIOA DEUSEZTATZEA**



Parte hartzeko akordioa deuseztatzeko arrazoiak honako hauek izango dira, besteak beste:

- A) Balio erantsia dakarren ekintzailtza proiektu berritzaile, sektore anitzeko eta bideragarri baten fundatzaile diren gazte donostiarren kasuan:
- Ekinn+ eta Ekinn+ Osasuna programaren 2023ko eta 2024ko edizioetan edo dagokion programan ezarritako mugarrak ez betetzea.
  - Ekinn+ eta Ekinn+ Osasuna programaren 2023ko eta 2024ko edizioak edo dagokion programa uztea.
  - Ekinn-eko alokairu kontratuari lotutako betebeharrak ez betetzea.
- B) Tokiko erakundeetan lan egiteko kontratatu diren eta Donostiako Sustapenak tokiko talentua garatzeko sustatu dituen programa baten markoan berrikuntza- eta/edo ikerkuntza-proiektuak garatzen dituzten gazte donostiarren kasuan:
- Gaztea kontratatu duen enpresarekiko lan harremana etetea.
  - Lan kontratua ez luzatzea, Donostiako Sustapenaren programek diruz lagundutako aldia bukatu eta gero.
  - Ekinn-eko alokairu kontratuari lotutako betebeharrak ez betetzea.

Horrelakoetan, Donostiako Sustapenak programan parte hartzeko erabakia bertan behera utzi ahal izango du, eta aurreko egoeretako batean geratu den onuradunak ez du kalte ordainik edo konpentsaziorik jasotzeko eskubiderik izango.

Era berean, eskatzaileak oinarri hauetan aipatutako betebeharrak edozein bete ezean, Donostiako Sustapenak errentamendu kontratua berehala desegin ahal izango du eta, gainera, ez-betetzearen ondorioz sor daitezkeen kalte galerak erreklamatu ahal izango ditu.

## 9. PROGRAMAN BORONDATEZ BAJA EMATEA

Programaren onuradunek edozein unetan baja emateko eskatu ahal izango dute, baina Donostiako Sustapenak esleitutako apartamentua utzi baino hilabete bat lehenago abisatu beharko dute, fidantza azken hilabeteko alokairua ordaintzeko erabiltzea saihesteko.

Borondatezko baja emateko eskaera aurkeztu eta gero, Ekinn eraikina uzteko data ezarriko da, apartamentuaren egoera aztertuko da eta garbiketa egingo da, beharrezkoa izanez gero. Hori guztia eginda eta oniritzia jasota, fidantza itzuli egingo da, alokairu kontratuan adierazitako baldintzei jarraikiz.

Programan borondatez baja emateko eskaera formalizatzeko, mezu elektronikoko bat bidali beharko da [Sustapena\\_TalentHouse@donostia.eus](mailto:Sustapena_TalentHouse@donostia.eus) helbidera, apartamentua uzteko data eta borondatez baja emateko arrazoiak adierazita.

## 10. DATUAK BABESTEA

Datuak babesteko indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera, jakinarazten da emandako datuak Donostiako Udalak tratatuko dituela, tratamenduaren arduradun moduan, eta Donostiako Sustapena SAK informazioa kudeatuko du tratamenduaren eragile moduan.

Tratamenduaren helburua zure laguntzaren eskaera izapidetu eta kudeatzea da.

DBEOren 6.1.e) artikulua da tratamenduaren bidez kotasunaren oinarria: tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena; 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa; eta 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra.

Oinarri hauetan edo eskabide inprimakietan hala adierazten bada, datu pertsonalei buruz eskatzen den informazioa derrigorrez eman beharko da, eta datu okerrak emateak edo daturik ez emateak eskabidea kudeatzea eragotziko du.

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzen onuradunek emandako datu pertsonalak Estatuko edo nazioz gaindiko erakundeei laga ahal izango zaizkie, baldin eta laguntza horiek batera finantzatzen badituzte eta/edo Donostiako Sustapenarekin batera kudeatzen laguntzen badute, hori erabat beharrezkoa denean, eta emakida kudeatzeko soilik.

Era berean, jakinarazten da laguntzak emateak berekin ekarriko duela pertsona onuradunaren identifikazio datuak jakinaraztea edo lagatzea; izan ere, datu horiek, baita emandako laguntzaren zenbatekoa ere, Donostiako Sustapenaren webgunean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

Ez da aurreikusten datuen komunikazio gehiagorik, ezta datuen nazioarteko transferentziarik ere, legeak hala agintzen ez badu.

Tratamendu honen xede diren datu pertsonalak bildu diren helburua betetzeko eta helburuaren eta tratamenduaren ondorioz sor daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboraz gordeko dira. Artxiboari eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko da.

Eragindako pertsonak datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzte hala dagokionean, baita datuak babesteko indarrean dagoen araudian ezarritako beste eskubide batzuk ere, Donostiako Udaleko Udalinfo zerbitzuaren bitartez: Easo kalea 41, 20006 Donostia.

Interesdunak bere eskubideak baliatzeko garaian behar bezalako arreta jaso ez badu, erreklamazio bat aurkeztu ahal izango du Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Helbidea: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 3. solairua, 01008 Vitoria-Gasteiz. Hala ere, alde zuzenean, datuen babeserako Donostiako ordezkariarekin harremanetan jartzeko aukera izango du: [dbo@donostia.eus](mailto:dbo@donostia.eus).

## 11. LEGEDIA ETA AUZIAK EBAZTEA

---

Edozein eztabaida, gatazka edo desadostasun sortzen bada, gatazkak ebazteko judizioz kanpoko bidea amaituta eta dagozkion errekurtsio eta erreklamazioak aurkeztuta, alderdi biek Donostiako auzitegi eta epaitegiek ebaztitakoa beteko dute.

Donostian, sinaduran agertzen den egunean

Iñigo Olaizola  
Donostiako Sustapena SAko zuzendari kudeatzailea